




Aurkibidea

0. Aurkezpena	03
1. Misioa, bisioa eta balioak	05
2. Mapa estrategikoa	07
3. Jarduketen xehetasunak	11

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Iturriotz 27-1º
20500 Arrasate
Tel. 943 77 20 10
mundukide@mundukide.org
www.mundukide.org

Lege-gordailua: SS 423-2016
Matt-FSC NEO STAR paperean inprimatua.

0. Sarrera

Oraindik ere COVID-19aren pandemiaren ondorioak pairatzen ari garenean, Ukrainako gerrak astindu du gure bizitza. Milaka hildako eta milioika errefuxiatu eragin dituen gerra bat Europan.

Baina betiko moduan, planetako pertsonarik ahulenak izango dira gerra honen ondorio latzenak jasango dituztenak; izan ere, horri gehitzen badiogu gero eta handiagoa den desigaltasuna, krisi klimatikoa eta COVID 19aren pandemia, zailagoa izango da ura, elikagaiak, hezkuntza, osasungintza eta, azken batean, eskubiderik oinarritzkoenak eskuratzea.

Testuinguru horretan, MUNDUKIDEn Plan Estrategiko berria aurkeztu nahi dugu. Plan horrek ELKARTASUN UNIBERTSAletik abiatuz eta GIZARTE ERALDAKETArako LANAREN bidez eragiten du.

Balio horiek epe luzerako lankidetzan gauzatzen dira, soluzio eraginkorrak dakartzaten emaitzetara bideratuta eta toki mailan eraginez. Kooperatiben kulturen oinarritutako lankidetzaren filosofia bat da, pertsona erdigunean jarri eta lana garapenerako motortzat hartzen duena. Horregatik, hain zuzen, lankidetzaren kooperatiboak ari gara.

Ez dugu ezer oparitzen, baina prestakuntzaren, laguntza teknikoaren eta teknologiaren bitartez laguntzen dugu, testuingurura eta tokiko beharretara egokituz. Beren espezializazioetatik abiatuz eta epe luzeko prozesuetan tokiko bazkideen sare zabalen bidez komunitateekin zuzenean lan eginez garapen sozioekonomikoa sustatzen ari diren lankideen bitartez egiten dugu hori guztia.

Pertsonen aukerak eskaintzen dizkiegu, lan indibidualaren eta kolektiboaren bidez beren bizitza alda dezaten. Eta horixe jarraituko dugu Mozambiken, non gatazkek, baliabide naturalen ustiapen txarrak eta gobernantza okerrak herrialdea pobretzea ekarri duten eta biztanleriaren %90etik gora (27 milioi pertsona) pobrezia mugaren azpitik bizi den (1.90 dolar baino gutxiago egunean); eta Etiopian, non azken 40 urteetako lehorterik handiena jasaten ari diren, azken 25 urteetako oti izurriterik handienarekin batera; eta Brasilen, non desigaltasuna hain den handia ze 6 gizonen pilatzen baitute biztanleriaren erdirik pobreenak (100 milioi pertsona baino gehiago) adina aberastasun; eta Kolonbian, non FARCEkin akordioa lortu eta bost urtera sarraskiek, hilketek eta behartutako desplazamenduek erakusten duten oraindik ez dela bakerik, izan ere, 2021a izan da urterik bortitza 2013tik hona; eta Ekuadorren, non 2 urtetik beherako hamar urtetik hiruk desnutrizio kronikoa pairatzen duten.

Errealitate horren aurrean, datoen lau urteetan GURE LANKIDETZAREN ERAGINA HANTITZEKO konpromisoa hartu dugu, milaka pertsonari bizi alternatiba gehiago eta hobekiak eskaintzen jarraitzeko. Horretarako, pertsonen, aliantzen eta baliabideen esparruan ere lan egin beharko dugu, gure erakundea indartzeko. Guztion lankidetzarekin eta ahalegi-narekin bai, lortuko dugu.

“

MUNDUKIDERen Plan Estrategiko berria aurkeztu nahi dugu. Plan horrek ELKARTASUN UNIBERTSALetik abiatuz eta GIZARTE ERALDAKETarako LANAREN bidez eragiten du. Balio horiek epe luzerako lankidetzan gauzatzen dira, soluzio eraginkorrak dakartzaten emaitzetara bideratuta eta toki mailan eraginez. Kooperatiben kulturen oinarritutako lankidetzaren filosofia bat da, pertsona erdigunean jarri eta lana garapenerako motortzat hartzen duena. Horregatik, hain zuzen, lankidetzaren kooperatiboaz ari gara.

”



1.

MISIOA, BISIOA ETA BALIOAK



Misioa:

Hegoaldeko herriein lankidetzan jardutea, esperientziak, baliabideak eta jakintza partekatuz, inplikaturako aldeengarapen autokudeatua eta integrala sustatzeko, eta, horretarako, lan mundu kooperatiboaren elkartasuna aktibatzea, Mundukideren balio eta printzipioetan oinarrituz eta haien gidaritzapean.



Bisioa:

Gure lankidetzaren eragina handituz, gizartea eraldatzeko motibatutako pertsonak.



Balioak:

Elkartasun unibertsala. Elkartasunezko ekonomiako beste esperientzia batzuekin eta demokrazia sozialaren alde lan egiten dutenekin elkartasunez jardutea, bake, justizia eta garapen helburuak partekatuz, Mundukiden parte hartzen dugun pertsonen lanaren oinarria da.

Lana. Lana, ekintza eraldatzaile gisa egiten dugu, aldaketarako ekintza gisa, garapena lortzeko bide gisa. Mundukiden pentsatzen dugu lana berez dela balio bat, eta lana kapitalaren gainetik dagoela.

Gizarte eraldaketa. Mundukidekoon xedea eraldaketa da, pertsona eta gizarte justuagoak eta arlo guztietan autokudeaketara emanagoak lortzeko bidean; baita genero harremanen arloan ere. Ikuspegi horretatik, autonomiak berebiziko garrantzia du pertsona, kolektibo eta herri bakoitzak zer gizarte eredu izan nahi duen erabaki ahal izateko.



“

Ez dugu ezer oparitzen, baina prestakuntzaren, laguntza teknikoaren eta teknologiaren bitartez laguntzen dugu, testuingurura eta tokiko beharretara egokituz. Beren esperientziatik abiatuz eta epe luzeko prozesuetan tokiko bazkideen sare zabal baten bidez komunitateekin zuzenean lan eginez garapen sozioekonomikoa sustatzen ari diren lankideen bitartez giten dugu hori guztia.

”

2. MAPA ESTRATEGIKOA

	Erronka	Ildo estrategikoa
1. ERRONKA	INTERKOOPERAZIOA ETA HAREN ERAGINA ZABALTZEA	1. ILDOA - EMAITZAK HANDITZEA INTERKOOPERAZIO PROGRAMETAN
		2. ILDOA - HAZKUNDE PROZESUAK HOBETZEA ETA PROGRAMEN ERAGINA NEURTZEA
2. ERRONKA	PERTSONA TALDEA ETA ERAKUN- DEA INDARTZEA	3. ILDOA - PERTSONA TALDEA INDARTZEA
		4. ILDOA - ERAKUNDE KAUDIMENDUNA ETA ERAGINKORRA
3. ERRONKA	KOOPERATIBEKIKO LOTURA ETA NABARMENTASUNA HANDITZEA	5. ILDOA - NABARMENTASUNA HANDITZEA
		6. ILDOA - KOOPERATIBEK MUNDUKIDE PROIEKTUAREKIN DUTEN LOTURA SENDOTZEA



1. ERRONKA: Interkooperazioa eta haren eragina zabaltzea

Erronka	Ilido estrategikoa	Helburuak
INTERKOOPERAZIOA ETA HAREN ERAGINA ZABALTZEA 1. ERRONKA	1. ILDO ESTRATEGIKOA: EMAITZAK HANDITZEA INTERKOOPERAZIO PRO- GRAMETAN	0.1. Interkooperazio programek Hegoal- deko pertsonen eta komunitateen bizitzan duten eragin positiboa handitzea. 0.2. Egindako jarduketek gizarte eral- daketaren unibertsaltasunean duten eragin positiboa handitzea – GE- HIKOOP (Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza Interkooperatiboa). 0.3. Hegoaldeko Ingurumen Jasangarritza- sunaren arloko estrategia* zehaztea eta proposamenak inplementatzea.
	2. ILDO ESTRATEGIKOA: HAZKUNDE PROZESUAK HOBETZEA ETA PROGRA- MEN ERAGINA NEURTZEA	0.4. Eragina neurtzeko sistema bateratu bat martxan jartzea, adierazle komu- nen oinarri batekin. 0.5. Hegoaldean interkooperazio pro- grama berriak irekitzeko politika garatzea.

* Erabili beharreko terminologia estrategiaren definizioaren parte da. Ulertzen da, Ingurumen-
iraunkortasunaren kontzeptuak, hausnarketa prozesua ez mugatzeko adinako zabaltasuna duela.



2. ERRONKA: Pertsona taldea eta erakundea indartzea

Erronka	Ildo estrategikoa	Helburuak
PERTSONA TALDEA ETA ERAKUNDEA INDARTZEA 2. ERRONKA	3. ILDO ESTRATEGIKOA PERTSONA TALDEA INDARTZEA	0.6. Erakundeak une oro bere misioa gauzatzeko motibatutako pertsona talde egokia duela ziurtatzea. 0.7. Programak lekuan bertan koordinatu, lagundu eta gauzatzeari lehentasuna ematen jarraitzea. 0.8. Boluntariotzaren ekarpenarekin, programak eta prozesuak indartzea.
	4. ILDO ESTRATEGIKOA ERAKUNDE KAUDIMENDU- NA ETA ERAGINKORRA	0.9. Egitura erakundearen errealitate berrira egokitzea, prozesuen arteko interkone-xioa handituz. 0.10. Finantzaketa beharrei erantzutea, auto-nomiari eutsiz. 0.11. Erronka estrategikoei laguntzeko proze-suak egokitzea.



3. **ERRONKA:** Kooperatibekiko lotura eta nabarmentasuna handitzea

Erronka	Ildo estrategikoa	Helburuak
KOOPERATIBEKIKO LOTURA ETA NABARMENTASUNA HANDITZEA 3. ERRONKA	5. ILDO ESTRATEGIKOA NABARMENTASUNA HANDITZEA	0.12. Mundukideren lanaren ezagutza handitzea, komunikazio jarduera areagotuz eta hobetuz.
	6. ILDO ESTRATEGIKOA KOOPERATIBEK MUNDUKIDE PROIEKTUAREKIN DUTEN LOTURA SENDOTZEA	0.13. Kooperatiben babes estruktural eta instituzionala lortzea. 0.14. Kooperatibisten eta Mundukideren arteko lankidetza zabaltzea.



3. JARDUKETEN XEHETASUNAK

1. ERRONKA

INTERKOOPERAZIOA ETA HAREN ERAGINA ZABALTZEA

1. ILDO ESTRATEGIKOA

INTERKOOPERAZIO PROGRAMETAN EMAITZAK HANDITZEA

1 HELBURUA: Interkooperazio programek Hegoaldeko pertsonen eta komunitateen bizitzan duten eragin positiboa handitzea.

Programetan egiten den lana Plan Estrategikoan txertatzeko asmoz, lehenengo helburu hau interkooperazio programa bakoitzeko fitxa batean azpibanatzea erabaki da:



MOZAMBIKE

PROGRAMAREN HELBURUA: Lichinga-Pemba korridoreko tokiko biztanleen gaitasuna handitzea, bidezko garapen jasangarriari lagunduko dion errenta sortzeko, pertsona autonomoak, erresilienteak eta buruaskiak izan daitezen.

Adierazlea:

- Programak 10.000 enpleguren baliokidea sortu du.



Ekintzak	Adierazleak	2022	2023	2024	2025
Nekazarien egoera espezifikora ego- kitutako laguntza teknikoa eskuratzen laguntzea, detektatutako aukerak apro- betxatzeko.	20.000 pertsona – 13.500 gizon eta 6.500 emakume.	●	●	●	●
Sustatzen diren teknikak/laboreak aplikatzeko beharrezkoak diren intsu- mo, material eta ekipamenduak esku- ratzen laguntzea.	90.000 €/urtean.	●	●	●	●
Merkatuan sartzen laguntzea soberaki- na saltzeko.	500.000.000MZN urtean 6.500.000€ urtean.	●	●	●	●
Prozesuak hobetzea eta kudeaketa tresna berriak sortzea (kontabilitatea, biltegiak, eremuen neurketa...).	2 kudeaketa sistema berri diseinatuta eta martxan.	●	●	●	●
Niassako probintzian programaren hazkundera sendotzea.	3 talde finkatuta 3 barruti berritan.	●	●	●	●
Programak pertsonen bizitzan duen eragina handitzen lagunduko duten metodologiak lantzea eta finkatzea.	Metodologia berri bat arrakastaz dago martxan probintzia bietan.	●	●	●	●
Nekazaritza ekoizpena hobetzen eta dibertsifikatzen lagunduko duten labore eta/edo teknika berriak sartzeara.	5 labore/teknika berri sartu dira.	●	●	●	●



ETIOPIA

PROGRAMAREN HELBURUA: Nekazari txikien bizi baliabideak hobetzea, Arsi eskualdean (Oromia) nekazaritza ekoizpena eta produktibitatea hobetuz.

Adierazlea:

- Programak 300 enpleguren baliokidea sortzea lortzen du.



Ekintzak	Adierazleak	2022	2023	2024	2025
Nekazaritza eta abeltzaintza ekoizpenerako aukera berriak sortzea, teknika eta labore berriak sartuz.	8 teknika/labore berri sustatu dira.	●	●	●	●
Laguntza teknikoa ematea eta sustatzen diren teknikak/laboreak aplikatzeko beharrezkoak diren intsumo, material eta ekipamenduak eskuratzen laguntzea.	700 pertsona - 450 gizon eta 250 emakume.	●	●	●	●

MALAWI

PROGRAMAREN HELBURUA: Malawiko pertsonen bizitzan eragin positiboa izango duen programa bati ekitea.

Adierazlea:

- Proiektu pilotu bat inplementatuta; 2 finantzatzailei proiektu 1 aurkeztuta.



Ekintzak	Adierazleak	2022	2023	2024	2025
Malawiren, toki erakundearen eta jardute eremuaren identifikazioa amaitzea.	Akordioa toki erakundearekin. Jardute eremua identifikatuta.			●	●
Eskualde garapeneko proiektu pilotu bat identifikatzea, diseinatzea eta abian jartzea.	Proiektu pilotu bat inplementatuta.			●	●
Finantzatzaileei proiektu proposamenak aurkeztea.	Finantzatzaileei proiektu bat aurkeztuta.				●



BRASIL

PROGRAMAREN HELBURUA: Kanpalekuetan eta asentamenduetan bizi diren Lurrik Gabeko Langile Mugimenduko familien garapen sozioekonomikoa hobetzea, eta, horretarako, orain arte egindako lana sendotzea eta Brasilen tokiko finantzaketarako dauden aukerak aprobetxatzea.

Adierazlea:

- 50 kooperatibatako 5000 bazkidek -3.125 gizon eta 1.875 emakume- beren itzulkin kooperatiboak hobetu dituzte. Programak 5 estatutan dihardu (Rio Grande do Sul, Parana, Santa Catarina, Sao Paulo, Ceara) Brasilgo hegoaldean, erdialdean eta ipar-ekialdean.



Ekintzak	Adierazleak	2022	2023	2024	2025
Kudeaketako prestakuntza indartzea, kooperatibak indartzeko elementu gisa, batez ere ipar-ekialdeko eskualdean.	15 ikastaro eta urtean 149 pertsona.	●	●	●	●
Kooperatibei eta MSTko erakundeei laguntzea gizarte eta enpresa arloko kudeaketan, balio kateak indartzeko ahalegin handiagoa eginez, kooperati-ben arteko interkooperazio gune gisa, batez ere erdialdeko eta hegoaldeko eskualdeetan.	• 24 kooperatibari laguntzen zaie. • 22 erakunderi la-guntzen zaie. • 2 kateri laguntzen zaie.	●	●	●	●
Kooperatibei laguntzeko 4 taldeen ekintza indartzea, programak kooperati-bei ematen dien laguntzan sakontzeko oinarritzko elementu gisa.	• Kooperatibei la-guntzeko 4 taldek 20 kooperatibari laguntzen diete.	●	●	●	●
Genero ekitateari eustea, programako jarduera guztien ikuspegi transbertsal gisa.	• Prestakuntzan eta laguntzan parte hartzen dutenen 1/3 emakumeak dira. • Parte hartzaileen %80k adierazi dute beren posizioa in-dartu egin dela.	●	●	●	●
Programaren proiektuak finantzatzeko, tokiko finantzaketa eskuratzea.	• 2 proiektu gauzatu dira tokiko finantzaketa bidez.	●	●	●	●



KOLOMBIA

PROGRAMAREN HELBURUA: Birziklatzaileen kolektiboaren antolaketa eta arlo sozioekonomikoa eta emakume nekazarien bizitza hobetzen laguntzea, tokiko erakundeekin batera.

Adierazlea:

- 997 pertsonak -672 emakume eta 325 gizon- hobera egin dute ongizatean.



Ekintzak	Adierazleak	2022	2023	2024	2025
Kolonbiako hego-mendebaldeko ofiziozko birziklatzaileen bizitza hobetzea, birziklatzaileen erakundeak indartuz.	• 620 pertsona (280 gizon). • 3 departamendu eta Bogota.				
Pastoko emakume nekazari indigenen bizimodua hobetzea, ekoizpen eta merkaturatze aukerak hobetuz, nekazaritza ekologiarako trantsizioa egiten ari den nekazaritzan oinarrituta.	• 377 pertsona (45 gizon). • Merkaturatzea %50 hazi da.				
Nekazaritza indartzeko eredia sendotzea eta departamendu berri batera zabaltzea.	Ekimen berri bat inplementatu da Kolonbiako hego-mendebaldean.				



EKUADOR

PROGRAMAREN HELBURUA: Tokiko erakundeekin batera, ipar mugako eta Amazoniako landa erakundeen garapen sozioekonomiko jasagarria eta elkartegintza bultzatzea

Adierazlea:

- 135 emakume beren bizitza hobetzen ari dira.



Ekintzak	Adierazleak	2022	2023	2024	2025
Cotacachiko 10 elkarteren merkaturatzea indartzea.	• 135 emakume beren bizitza hobetzen ari dira. • 10 ekoizpen elkarte-tako bazkideak beren bizitza hobetzen ari dira.	●	●	●	●
Gizartea eraldatzeko bigarren prozesuari laguntzea, ekintzailatza produktiboen bidez.	Beste laguntza 1.	●	●	●	●
Wiñaki bere plangintza estrategikoan laguntzea.	Plan estrategiko 1 inplementatuta.	●	●		



2. HELBURUA: Egindako jarduketek gizarte eraldaketaren unibertsaltasunean duten eragin positiboa handitzea – GEHIKOOP (Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza Interkooperatiboa).

Adierazlea:

- Parte-hartzaileak, sexuaren arabera bereizita: 2.500 pertsona (% 50 emakumeak/gizonak).
- Parte-hartzaileek modu autonomoan egindako ekintzen kopurua: 50.



Ekintzak	Adierazleak	2022	2023	2024	2025
GEHIKOOP prestakuntza ibilbideari kooperatiba berriekin ekitea.	• Parte hartu duten kooperatiben kopurua: 15 • Parte hartzaileak, sexuaren arabera bereizita: 75 pertsona (%50 emakumeak/gizonak)	●		●	
Kooperatibetako pertsonekin ibilbideari jarraitzea, lan poltsa bat sortze aldera.	• Mundukideren ekintzetan parte hartzen duten kooperatibetako bazkideak: 100. • Parte hartzaileek modu autonomoan egindako ekintzen kopurua: 30	●	●	●	●
Prozesuen estandarizazioa.	Prozesua betetzea.		●	●	●
4 urteko prestakuntza ibilbidea finkatzea MUn (MGEP eta Enpresa-gintza).	• Inpaktua ikasleen irteera profilean. • Parte hartzaileak, sexuaren arabera bereizita: 2.000 pertsona (%50 emakumeak/gizonak).	●	●	●	●
Ikastetxeek modu autonomoan erabiltzen duten material pedagogikoa garatzea eta zabaltzea.	Parte hartzaileek modu autonomoan egindako ekintzen kopurua: 20.	●	●	●	●
Programekin, komunikazio arloarekin eta finantzaketa arloarekin koordinatzeko mekanismoak sortzea.	Arlo bakoitzarekin adostutako lan dinamikak.	●	●	●	●





3. HELBURUA: Hegoaldeko Ingurumen Jasangarritasunaren arloko estrategia zehaztea eta proposamenak inplementatzea.

Adierazlea:

- Estrategia zehaztuta eta bi proiektu berri martxan eta finantzaketarekin.



Ekintzak	Adierazleak	2022	2023	2024	2025
Prestakuntza bat antolatzea gaian adituak diren pertsonekin.	Prestakuntza antolatuta.	●			
Pertsona bat sartzea arloa gidatzeko.	Pertsona kontratatuta.	●			
Ingurumen Jasangarritasuneko Estrategia zehaztea.	Estrategia onartuta.	●	●		
Egungo programekin bateragarriak diren proposamenen inplementazioa aztertzea.	Analisiak egungo programen herrialdeetan.		●		
Hegoaldeko herrialdeetan gutxienez bi proiektu inplementatzea.	2 proiektu berri martxan.		●	●	●
Proposamen horietarako finantzaketa lortzea.	Proiektuak finantzaketarekin.			●	●



2. ILDO ESTRATEGIKOA

HAZKUNDE PROZESUAK HOBETZEA ETA PROGRAMEN ERAGINA NEURTZEA

4. HELBURUA: Eragina neurtzeko sistema bat martxan jartzea, interkooperazio programetan adierazle komun enarri batekin.

Adierazlea:

- Bai Mundukideren urteko memoria, bai programen kudeaketa planen segimendua, sistema berria eta haren adierazleak erabiliz egiten dira.

Ekintzak	Adierazleak	2022	2023	2024	2025
Interkooperazio programetan erabilitako neurketa prozesuak eta adierazleak berrikustea eta ebaluatzea.	Egungo adierazleen eta neurketa irizpideen bankua sortuta.	●	●		
Interkooperazio programetarako erreferentziarako adierazleak dituen neurketa sistema bat definitzea.	Neurketa sistema zehazten duen dokumentua.		●		
Sistema berria Mundukideren interkooperazio programetan inplementatzea.	Mundukideren urteko memoria eta programen kudeaketa planen segimendua sistema berria erabiliz egiten dira.			●	●



5. HELBURUA: Hegoaldeko herrialdeetan interkooperazio programa berriak irekitzeko politika garatzea.

Adierazlea:

- Patronatuak onartutako politika.

Ekintzak	Adierazleak	2022	2023	2024	2025
Programa berriak irekitzeko baldintzak baloratzeko adierazleak zehaztea: tes-tuingurua, finantzak, pertsonak.	Baldintzak zehaztuta.		●		
Aukeren azterketa geografikoa egitea.	Azterketa geografikoa.		●		
Programak irekitzeko prozesu bat zehaztea.	Prozesua zehaztuta.		●		
Adierazleen urteko segimendua.	Prozesua martxan.			●	●



“

**Betiko moduan, planetako pertsonarik
ahulenak izango dira gerra honen ondorio
latzenak jasango dituztenak; izan ere, horri
gehitzen badiogu gero eta handiagoa den
desigualtasuna, krisi klimatikoa eta COVID 19
aren pandemia, zailagoa izango da ura,
elikagaiak, hezkuntza, osasungintza eta, azken
batean, eskubiderik oinarritzkoenak eskuratzea.**

”

2. ERRONKA

PERTSONA TALDEA ETA ERAKUNDEA INDARTZEA

3. ILDO ESTRATEGIKOA

PERTSONA TALDEA INDARTZEA

6. HELBURUA: Erakundeak une oro bere misioa gauzatzeko motibatutako pertsona talde egokia duela ziurtatzea

Adierazlea:

- Pertsonen plan estrategikoa onartuta.
- 27 pertsona plantillan.

Antolaketa kulturaren indizeak (OTALORA):

- Gogobetetzea eta konpromisoa >5.
- Kultura eraikitzailea >5.
- Kalitate emozionala >70.



Ekintzak	Adierazleak	2022	2023	2024	2025
Erakundearen beharrei erantzungo dien pertsona estrategia zehaztea.	Pertsonen Plan Estrategikoa.	●			
Erakundeko pertsonen motibazioa, gogobetetzea eta konpromisoa handitzea.	Antolaketa kulturaren indizeak: • Gogobetetzea eta konpromisoa >5 • Kultura eraikitzailea >5 • Kalitate emozionala >70	●	●	●	●
Profil egokiak dituzten pertsonak erakartzea.	Kaptazio estrategia zehaztuta	●	●	●	●
Pertsonen etengabeko prestakuntza eta gaikuntza bultzatzea.	• Pertsonen prestakuntza plana 22-25. • Urtean 8 prestakuntza ordu pertsonako.	●	●	●	●
Egituretan, lan prozesuetan eta erabakiak hartzeko prozesuetan emakumeek eta gizonen duten parte hartzea ezabatzea, generizatuz eta feminizatuz.	• Emakumeek gutxienez %40ko ordezkaritza Patronatuan. • Batzorde Delegatuan eta kontratatutako langileen artean. • Kontratazio eta txandaketa berrien %50 emakumeak dira.	●	●	●	●



7. HELBURUA: Programak lekuan bertan koordinatu, lagundu eta gauzatzeari lehentasuna ematen jarraitzea.

Adierazlea:

- 15 lankide.
- Tokiko 60 pertsona kontratatuta.

Ekintzak	Adierazleak	2022	2023	2024	2025
Mozambique: Herrialdean eskema berria martxan jartzea, lankideei sarrera ahalbidetzeko eta tokiko lantaldeari merkaturatzeko jarduera errazteko.	5 lankide + tokiko 40.	●	●	●	●
Etiopia: Mundukide legeztatzea, lankidearen egonaldia eta tokiko lantaldearen sorrera ahalbidetzeko.	Lankide 1 + tokiko 3.	●	●	●	●
Malawi: Jarduerari ekitea eta lantaldea sortzea.	Lankide 1 + tokiko 3.			●	●
Brasil: Tokiko lantaldea osatzea eta lankideen lantaldea berritzea.	4 lankide lekuan bertan + tokiko 2.	●	●	●	●
Kolombia: Tokiko lantaldea sendotzea eta lankideen lantaldea berritzea.	2 lankide + tokiko 8.	●	●	●	●
Ekvador: Mundukide legeztatzea, lankidearen egonaldia eta tokiko lantaldearen sorrera ahalbidetzeko.	Lankide 1 + tokiko 4.	●	●	●	●
Ingurumen jasangarritasuna. Hegoaldeko herrialdeetan gutxienez bi proiektu martxan jartzea.	2 lankide.	●	●	●	●
Gehikoop: Gradu amaierako proiektuak MUrekin. Beste kooperatiba batzuekin lan poltsa martxan jartzea.	Gradu amaierako ikasle bat urtean + kooperatibetako 10 boluntario.	●	●	●	●



8. HELBURUA: Boluntariotzaren ekarpenarekin, programak eta prozesuak indartzea.

Adierazlea:

- 15 boluntario aktibo.
- Egindako ekarpenarekin gogobeteta dauden pertsonak.

Ekintzak	Adierazleak	2022	2023	2024	2025
2022-25 aldirako beharrak eta beharrezko profilak zehaztea.	15 boluntario aktibo.	●			
Boluntarioak programa eta prozesuetan integratzeko sistemak ezartzea.	Egindako ekarpenarekin gogobeteta dauden pertsonak.	●			
Mundukideren beharrei eta boluntarioen kezkei segimendua egitea.	4 jarraipen bilera.	●	●	●	●
Boluntarioak Mundukideren eguneroko dinamikan sartzea.	Programa eta prozesuetan pertsona boluntarioak sartuta.	●	●	●	●



4. ILDO ESTRATEGIKOA

ERAKUNDE KAUDIMENDUNA ETA ERAGINKORRA

9. HELBURUA: Egitura erakundearen errealitate berrira egokitzea, prozesuen arteko interkonexioa handituz.

Adierazlea:

- Organigrama berria.
- Koordinazio organo berriak.
- Barne araudia berrikusita.
- Hitzarmen propioa.
- Ekitatearen aldeko 2022-25 plana.

Ekintzak	Adierazleak	2022	2023	2024	2025
Antolaketa egitura berri bat zehaztea.	Organigrama onartuta.	●			
Barne araudia berrikustea, erakundearen errealitate berrira eta legegintzako berrikuntzetara egokituz.	• Barne araudia berrikusita. • Hitzarmen propioa onartuta.	●	●		
Prozesuen eta programen arteko koordinazioa bultzatzea.	Koordinazio organo eta dinamika berriak.	●	●	●	●
Erakundearen dinamikan pertsonen parte hartzea bultzatzea.	Bileren eta topaketen egutegia.	●	●	●	●
Erakundearen, genero transbertsalizazioan sakontzea.	Genero ekitatearen aldeko 2022-25 plana, urteko aurrekontu eta garapenarekin.	●	●	●	●



10. HELBURUA: Finantzaketa beharrei erantzutea, autonomiari eutsiz.

Adierazlea:

- Aurrekontua: 2.500.000 €.
- %40 fondo propioak - %60 dirulaguntzak.

Ekintzak	Adierazleak	2022	2023	2024	2025
Kooperatibetan, GGKEetan eta partikularren artean fondo propioak erakartzeko jarduerak identifikatzea eta martxan jartzea.	%40 fondo propioak.	●	●	●	●
Deialdiak identifikatzea eta proposamenak aurkeztea, iturrien dibertsifikazioa bermatuz.	%60 dirulaguntzak.	●	●	●	●
Fondoak lekuan bertan biltzeko prozesua abian jartzea, finantzaketa prozesuarekin koordinatuta.	Mozambique eta Brasilgo dirulaguntzen %30.	●	●	●	●
Segurtasun fondoa kudeatzea.	Aurrekontuaren %50-75eko Segurtasun Fonda.	●	●	●	●



11. HELBURUA: Erronka estrategikoei laguntzeko prozesuak egokitzea..

Adierazlea:

- Kudeaketa ekonomikoa:
- Salbuespenik gabeko auditoretza.
 - Gainerako prozesuetarako eskuragarri dagoen beharrezko informazioa.
- Sistemen kudeaketa:
- Mundukideko pertsonen nahikoa tresna eta gaitasun daukate tresna horiek erabiltzeko.


Ekintzak	Adierazleak	2022	2023	2024	2025
Gestión económica: • Kudeaketa ekonomikoa behar berrietara egokitzea. • Erakundearen beharrei erantzutea.	• Gainerako prozesuetarako eskuragarri dagoen beharrezko informazioa. • Salbuespenik gabeko auditoretza.	●	●	●	●
Sistemen kudeaketa: • Dokumentuen informazioa trukatzeko mekanismoei eustea eta pertsonak informazio hori behar bezala erabil dezaten ahalduntzea. • Segimendu ekonomikoko sistemen erabilera hedatzea, eta horretarako, pertsonak ahalduntzea. (NSG, OpenERP, MITEK eta EM). • Informazio baliabideen beharrak berrikustea.	• Mundukideko pertsonen bada-kiteinformazioa trukatzeko tresnak erabiltzen, eta erabiltzen dituzte. • Mundukideko pertsonen %100 prestatuta daude, eta tresnok erabiltzen dituzte. • Sistemen prozesuaren dokumentua berrikusita, diagnostikoa eguneratuta.	●	●	●	●



“

Pertsonei aukerak eskaintzen dizkiegu, lan indibidualaren eta kolektiboaren bidez beren bizitza alda dezaten. Eta holaxe jarraituko dugu Mozambiken, non gatazkek, baliabide naturalen ustiapen txarrak eta gobernantza okerrak herrialdea pobretzea ekarri duten eta biztanleriaren %90etik gora (27 milioi pertsona) pobreziaren mugaren azpitik bizi den; eta Etiopian, non azken 40 urteetako lehorterik handiena jasaten ari diren, azken 25 urteotako oti izurriterik handienarekin batera; eta Brasilen, non desigualtasuna hain den handia ze 6 gizonek pilatzen baitute biztanleriaren erdirik pobreenak adina aberastasun; eta Kolonbian, non FARCekin akordioa lortu eta bost urtera sarraskiek, hilketek eta behartutako desplazamenduek erakusten duten oraindik ez dela bakerik, izan ere, 2021a izan da urterik bortitzena 2013tik hona; eta Ekuadorren, non 2 urtetik beherako hamar umetik hiruk desnutrizio kronikoa pairatzen duten.

”



3. ERRONKA

KOOPERATIBEKIKO LOTURA ETA NABARMENTASUNA HANDITZEA

5. ILDO ESTRATEGIKOA

NABARMENTASUNA HANDITZEA

12. HELBURUA: Mundukideren lanaren ezagutza handitzea, komunikazio jarduera areagotuz eta hobetuz.

Adierazlea:

- Komunikazio plan bat.
- Urtean %10eko hazkundea komunikazio kanalen segimenduan (sareak, webgunea, newsletterra...).
- Mundukideko bazkideen edo ekarpen egileen kopurua 150 pertsonatan handitzea.

Ekintzak	Adierazleak	2022	2023	2024	2025
Orain arte egindako komunikazio ekintzak ebaluatzea.	Diagnostiko partekatu.	●			
Xede publikoa definitzea (tokikoa, estatukoa, nazioartekoa).	Xede publikoa segmentatuta eta ezaugarrituta.	●			
Programen narratiba eraikitzea, gure lana hobeto komunikatzeko.	Narratiba bat programa bakoitzeko.	●			
Orain arteko ikaskuntzak jasoko dituen komunikazio plan berritzaile bat egitea.	Komunikazio plana.	●			
Komunikazio plana inplementatzea.	Urtean %10eko hazkundea komunikazio kanalen segimenduan (sareak, webgunea, newsletterra...). Mundukideko bazkideen edo ekarpen egileen kopurua 150 pertsonatan handitzea.	●	●	●	●



6. ILDO ESTRATEGIKOA

KOOPERATIBEK MUNDUKIDE PROIEKTUAREKIN DUTEN LOTURA SENDOTZEA

13. HELBURUA: Kooperatiben babes estruktural eta instituzionala lortzea.

Adierazlea:

- Kooperatiben ekarpena: 850.000 euro urtean.
- Lankide kooperatibistentzako akordioak 5 kooperatibarekin.

Ekintzak	Adierazleak	2022	2023	2024	2025
MONDRAGON esperientziako koopera- tibak: • Lankide kooperatibistentzako meka- nismo bideratzaileak ezartzea. • Interkooperaziorako proposamen berriak bultzatzea	• %40 fondo propioak. • Akordioak 5 kooperatibarekin. • 2 berrikuntza proiektu propio kooperatibekin 4 urtean.	●	●	●	●
Erakunde kooperatiboekiko (Konfekoop, ANEL, CEPES, coops4dev) elkarriketa areagotzea.	Aldizkako bilerak.	●	●	●	●
Programak garatzen ditugun herrial- deetako erakunde kooperatiboekin harremanak ezartzea.	Urteko bisita.	●	●	●	●



14. HELBURUA: Kooperatibisten eta Mundukideren arteko lankidetza zabaltzea.

Adierazlea:

- 5 lankide kooperatibista plantillan.
- Mundukideko bazkideen edo ekarpen egileen kopurua 100 pertsonatan handitzea.

Ekintzak	Adierazleak	2022	2023	2024	2025
Lasterketa solidarioaren zabalkundea handitzea, Mundukiderekiko eta kooperatibistekiko lotura sendotzeko.	Urtean 500 parte hartzaile lasterketan.	●	●	●	●
Pertsonen Mundukideren programak gehiago eta hobeto ezagutzea: • Kooperatibetan erakusketa ibiltariak antolatzea. • Programetara bisitak.	• 2 erakusketa kooperatibetan. • 50 kooperatibistak bisitatzen dituzte gure programak.	●	●	●	●
Kooperatibistentzako 2 kaptazio kanpaina espezifiko antolatzea.	Mundukideko bazkideen edo ekarpen egileen kopurua 100 pertsonatan handitzea.	●	●	●	●
Kooperatibistentzako lan poltsa martxan jartzea (GEHIKOOP).	100 kooperatibista parte hartzaile.	●	●	●	●
Kooperatibetan Mundukideren talde eragileak bultzatzea (GEHIKOOP).	15 talde eragile.	●	●	●	●



“

Datozen lau urteetan GURE LANKIDETZAREN ERAGINA HANDITZEKO konpromisoa hartu dugu, milaka pertsonari bizi alternatiba gehiago eta hobeak eskaintzen jarraitzeko. Horretarako, pertsonen, aliantzen eta baliabideen esparruan ere lan egin beharko dugu, gure erakundea indartzeko.

”

